



	<b>EUSKO LEGEBILTZARRA</b> <b>PARLAMENTU OROKORRA</b> <b>ERREGISTRO OROKORRA</b> <b>REGISTRO GENERAL</b>	<i>Euzko Abertzaleak Legebiltzar Taldea</i> Grupo Parlamentario Nacionalistas Vascos
2017 ABE. DIC. 11		
SARRERA/ ENTRADA	8058	IRTEERA/ SALIDA



## EUSKO LEGEBILTZARREKO MAHAIARI

Joseba Egibar Artolak, Euzko Abertzaleak Legebiltzar Taldeko bozeramaileak, egun indarrean dagoen Erregelamenduko 179.b eta 183.2 artikuluetaz baliatuz, adierazten du Maialen Gurrutxaga Uranga andereak Osasun sailburuari egindako galdera, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan, datorren Gobernuaren kontrolerako bilkuran gauzatzea nahi duela, Osakidetzaren Euskararen Erabilera Normalizatzeko II. Planaren betetze buruz.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko abenduaren 5ean.

JOSEBA EGIBAR ARTOLA



*Euzko Abertzaleak Legebiltzar Taldea*  
*Grupo Parlamentario Nacionalistas Vascos*

EUSKO LEGEBILTZARRA  
PARLAMENTO VASCO  
ERREGISTRO OROKORRA  
REGISTRO GENERAL

2017 ABE. 11  
D.C. 11

SARRERA/  
ENTRADA 8057 IRTEERA/  
SALIDA



## EUSKO LEGEBILTZARREKO MAHAIARI

Maialen Gurrutxaga Urangak, Euzko Abertzaleak legebiltzar-taldeko bozeramaile-ordeak, honako galdera hau egiten dio Osasun Sailburuari, bilkuran ahoz erantzun dezan, Osakidetza Euskararen Erabilera Normalizatzeko II. Planaren betetze mailari buruz. Horretarako, indarrean dagoen Erregelamenduaz baliatu da.

Argi dago gure herrian euskararen ezagutza nabarmen handitzen ari dela, baina oraindik ere, erabilerari dagokionez, bidea dugu egiteko eta erabileran areagotzeko pausoak eman behar ditugu. Hori da Euskadin daukagun erronka garrantzitsua eta bide horretan Jaurritzako sail guztietatik egin behar da aurrera. Horretan dihardu osasun sailak ere, Euskararen Erabilera Normalizatzeko II. Planaren ekuatorean aurkitzen garelarik. Osasun zentroetan Euskara Planak txertatuz, eta pazienteari bere hizkuntza artatzeko eskubidea eman.

Gure taldean badakigu Osakidetza Euskararen ezagutza eta erabilera areagotzeko, onura garrantzitsua dakarrela gizartean. Horregatik, Osasun sailburu jauna, honako galdera egiten dizugu:

Zein da Osakidetza Euskararen Erabilera Normalizatzeko II. Planaren betetze maila?

Vitoria-Gasteizen, 2017ko abenduaren 5ean.

MAIALEN GURRUTXAGA